




<b>abaildua</b> 'jausia, eroria'	"Bazkalondoan, nerbioek ahitua, lorik ezak <b>abaildua</b> , kuluxka bat egin ondoren (...) lorategira jo zuen." (103)
<b>adeitsuki</b> 'begirunez, errespetu handiz'	"Biharamunean, burua artean taupaka, <b>adeitsuki</b> besarkatu eta bereizi egin gintuan." (129)
<b>agidanez</b> 'agi denez, antza, dirudienez'	"Brikolajea eta puzzleak egitea zituen gogokoen, <b>agidanez</b> ." (93)
<b>ahal</b> (desioa adierazteko hitza) Ojala!	"...ez <b>ahal</b> zuen tristatuko!" (54)
<b>ahitua</b> 'indargabetua, unatua'	"Bazkalondoan, nerbioek <b>ahitua</b> , lorik ezak abaildua, kuluxka bat egin ondoren (...) lorategira jo zuen." (103)
<b>ailedi</b> 'izango ahal da!'	"Heriotza, gauaren alaba, ametsaren emaztea, <b>ailedi</b> enekiko amultsua izan." (23)
<b>ajatu</b> 'gastatu'	"...alferreko zirela lozio eta gainerako, kolorea ilean ez ezik animuan ere <b>ajatu</b> egin zitzaioela eta." (87)
<b>akitu</b> 'nekatua, kantsatua'	"...eta nik anartean ikusi ez nuen emakume <b>akitu</b> eta iraungia ahalaz ez nekarazteko." (132)
<b>alarau</b> 'orroa'	"...oihu ikaragarri hark, mendeetan zehar harpeetatik zetorren <b>alarau</b> betiereko, basati hark garuna taladratu zion arte." (45)
<b>aldaka</b> 'mehaka, gerri aldea'	"Hondora bidean, ordea, estu-estu jarri zizkidan belaunburuak <b>aldaken</b> parean, eta hatz gaketuekin kalparretatik tiraka hasi." (174)
<b>alimalea</b> 'haundia, itzela'	"Hitza duk enperadorearen jauregiak, <b>alimalea</b> izanik ere, ate bat baizik ez duela..." (131)
<b>aloka</b> 'alga, itsas belarrak'	" <b>Aloka</b> ustel, maskor pusketa eta itsas izendruz beterik zeuden arroka gainak..." (158)
<b>altzifrez</b> 'cupressus, zipresa'	"...lore more bi ipini genituen haren hilobiaren gainean, han, <b>altzifrez</b> garaien artean..." (15)
<b>anbar</b> 'erretxina fosildu gogor horia'	"...alditan eztiaren kolorea hartzen zuela, alditan anbar erretxinarena." (160)
<b>aniztun</b> 'ugarikoa'	"...sasi-azterketaren galbahetik iragandako edozein orrik kolore <b>aniztun</b> zirriborroaren itxura hartzen zuelarik." (93)
<b>apardun</b> 'bitsa duena'	"Ate ertzeroa heltzean, jiratu zen eta lehertzeko unean izaten duen indarrez eraso zidan <b>apardun</b> uhinak." (102)
<b>aratz</b> 'garbia'	"...ilunabar batez jo nian hiriburua, inperioko hiriburua, gau izarratu <b>aratz</b> hartan inguruko aintziren uhinek gozaro junpatua..." (129)
<b>arestiko</b> 'lehengoa, lehen aipatua'	"Taldearen buru, <b>arestiko</b> zaharra zihoan, astiro, herren txikia eginez eta lantzean behin burua nigana jiratuz, larderia handian." (131)
<b>ario</b> 'adio, agur'	"...konpetentziaren bagoietan kokaturiko ipuin bat aurkeztea milioiari alde aurretik <b>ario</b> egitea zen." (78)
<b>arrabete</b> 'esku irekiaren neurria'	"Berak abandonatua zirudien bidea erakutsi zidan, <b>arrabete</b> ko belar hazia baitzegoen gurgil aztarna harritsuen artean." (161)
<b>arranditsu</b> 'ikusgarria'	"Enperadoreak ezarritako segizio <b>arranditsu</b> batekin arribatu gintuan lur hauetara." (134)
<b>arre</b> 'iluna, lurraren kolorekoa'	"Donostiako giroak, <b>arrea</b> , bustia, kresal usainekoa..." (83)
<b>artamendu</b> 'agindutakoa, erregua'	" <b>Artamenduak</b> burutu nituenean, baimena eskatu eta gelatik irten ninduan." (133)
<b>artatu</b> 'jagon, zaindu'	"...eta dorpeki <b>artatu</b> nuela gorputz ahul eta mendre hura, bazekiat." (133)



<b>artean</b> 'anartean, oraindik' (Iraganean)	"Biharamunean, burua <b>artean</b> taupaka, adeitsuki besarkatu eta bereizi egin gintuan."	(129)
<b>asmotsu</b> 'burutsua	"Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto <b>asmotsu</b> hartan barrena, etxeen fabrika perfektua miretsiz..."	(130)
<b>asper</b> 'gogaitasuna, asperdura'	"Bertatik igotzen ziren Arizpeko emakumezkoak herriko estartak esperantzarik gabeko <b>asperra</b> bihurtzen zitzaizkienean."	(41)
<b>atezuan egon</b> 'tentsioan egon'	"Baina Mirenen gihar guztiak <b>atezuan zeuden</b> ..."	(120)
<b>atralaka</b> 'liskarra, errieta'	"...errebolbera amerikanaren sakelan eta ebilen, karabineroek kendu eutsen arte, <b>atralaka</b> baten ondoren."	(167)
<b>auhen</b> 'negar oihua, erosta'	"Ez da atsegina <b>auhenak</b> aditzea, oinazea kutsatu egiten baita."	(14)
<b>azalia</b> 'harmonia'	"Gaitza zen, zainarta, gaztetasanak betegintzarrearen <b>azalia</b> abesten zuen bere gorputzean."	(137)
<b>azkazal</b> 'atzazala'	"...atsoaren <b>azkazalek</b> sabela ukitu orduko (...) amorruez beteriko makilakada batez libratu zen atzaparretarik."	(120)
<b>aztoragarri</b> 'arduratzekoa, kezkarria'	"Xelebrea zen, xelebrea bezain <b>aztoragarri</b> , berak jakinaren gainean, behintzat, ez baitzuen lagun-koadrilarik"	(99)
<b>babo</b> 'papaua, tentela'	" <b>Babo</b> karaz begiratzen zion zerbitzariak hasieran..."	(90)
<b>bailuten</b> 'izango balute bezala'	"...joandako urtearen berririk ez <b>bailuten</b> mintzatzen ziren berarekin..."	(89)
<b>baratu</b> 'gelditu'	"Tarteka, egunak gainbehera zetozen tenorean, nire moduko mezularien egoitzetan <b>baratzen</b> ninduan."	(128)
<b>bat bedera</b> 'bakoitza'	"...eta iruditu zitzaidan denen musuetan halako irribarre bat, <b>bat bederari</b> bere patuarekiko laketasun zin eta alegera batetik sortua."	(130)
<b>batel</b> 'txalupa'	"Trena <b>batelaren</b> truk eta Hondarribia kendu eta Donostia jarri."	(88)
<b>begiratu</b> 'zaindu'	"...gizasemeek lerra handia ditek horietara, eta beti dituk garbi, zaindu eta ederrik <b>begiratuak</b> ."	(129)
<b>behitze</b> 'begirada'	"...gona estanpatua soinean..., "hippy samarra" erabaki nuen errezelozko <b>behitze</b> azkar baten ondoren."	(145)
<b>behazun</b> 'isurkari mingotsa'	"...aspaldian ezer ez janaren <b>behazun</b> korroskada ezpain bazterretatik boteaz..."	(84)
<b>behiala</b> 'lehen, aspaldi'	"— <b>Behiala</b> beltz izandako ileak zuritzen hasi zitzaizkion..."	(87)
<b>bekaitz</b> 'ondamua, haserre gisakoa'	"...eta maindire arterat sartzen nintzen haren <b>bekaitzari</b> so egin gabe."	(17)
<b>bekaizgarri</b> 'inbidia, ondamua'	"...besta horietan erregeren itzal bihurturik nenbilen (...) apaiz eta aitoren-semeak baino gorago ezarria, eta horien guztien <b>bekaizgarria</b> ."	(134)
<b>belaze</b> 'belardia, larrea'	"Maiatzeko ilunabarrean ez da <b>belazean</b> etzango zentzuz jokatzeko duenik..."	(42)
<b>beratxa</b> 'biguna, ahula'	"Nik hori entzun eta eskerrak bihurtu nizkioan, jaun magnifikoa, bihotz <b>beratxa</b> , eta berehala antolatu nizkian sendagailuak."	(133)
<b>bero sapa</b> 'sargoria'	"Baina ez, <b>bero sapa</b> izan arren, pozez kabitu ezinik zebilen, gora eta behera zakurraren atzetik."	(151)
<b>bertzun</b> 'sutondoko errautsa jasotzeko	"Aldameneko <b>bertzuna</b> hartu eta txingarrak zirikatu zituen."	(135)



<b>beta</b> 'denbora tartea, egokiera'	"Eta ni alde batetik pozik nengoen, umearen zama arindu zitzaidalako, nire gauzetarako <b>beta</b> luzatua ikusten nuelako..."	(148)
<b>betegintzarre</b> 'perfekzioa'	"Gaitza zen, zainarta, gaztetasunak <b>betegintzarrearen</b> azalia abesten zuen bere gorputzean."	(137)
<b>betiereko</b> 'amaitezina, betirakoa'	"...oihu ikaragarri hark, mendeetan zehar harpeetatik zetorren alarau <b>betiereko</b> , basati hark garuna taladratu zion arte."	(45)
<b>betizu</b> 'basatia, hezikaitza'	"-Etor hadi ohera! —erran nion, <b>betizuari</b> bezala."	(21)
<b>birundaka</b> 'biraka'	"Tentuz hasten ninduan edaten, baina (...) luza gabe inguruko gauza guztiak <b>birundaka</b> hasten zitzaizkidaan.."	(128)
<b>bisaia</b> 'begitarrea, aurpegia'	"Biharamunean, nire asmoa hori ez bazen ere, eguzkia <b>bisaian</b> eta hamarrak erlojuan esnatu nintzen."	(145)
<b>delibero</b> 'erabakitze gogoeta'	" <b>Delibero</b> motz baina bizi baten ostean, irudiz zaharrena nigana inguratu zuan..."	(131)
<b>ditxo</b> 'babeslekua, portu gisako tokia'	"...batzuk olatuen kontra borrokan, bestetzuk ilunabarreko ordu barean urruneko <b>ditxoren</b> batean ainguratuta."	(162)
<b>duintasun</b> 'dignitatea, errespetu gisakoa'	"...lehenengo klaseko bagoiek ohoretsu eusten diote beren izenari, baina <b>duintasuna</b> dakar mindua."	(83)
<b>durdiduta</b> 'durduzatu, zorabiatu bezala'	"...hasi zen deadarrak botaten, harik eta inguruko jente guztia, <b>durdiduta</b> , dardar baten imini arte."	(166)
<b>ebatu</b> 'oratu, heldu, eutsi'	"Haren gorputza ene alboan izan nuenean, hotza, <b>ebatu</b> egin nuen eta zaflatu, ezpainetatik odol hari bat zeriola geratu zen arte..."	(21)
<b>ediren</b> 'aurkitu, idoro, kausitu'	" <b>Ediren</b> ahal nituen botila guziak kentzen nizkion..."	(18)
<b>eldarnio</b> 'sukar-zorabioa, aluzinazioa'	"Nik ez nion <b>eldarnio</b> hari kasurik egiten, baina egunetik egunera ahultzen eta hondatzen ikusten nuen ene amatto..."	(18)
<b>endemas</b> 'are gehiago'	"Bestea, Edurnek baino ez dezake asma. <b>Endemas</b> , (...) berriz ere gezurra izan daitekeela buruan sartu zaidanetik."	(106)
<b>enparauak</b> 'gainerakoak'	"...adiskiderik ez duk izan, heure burua bera salbu, <b>enparauekin</b> nork-arinago lehiak baizik ez hau lotu eta."	(136)
<b>erbain</b> 'orbaina, ebakiondoa' (cicatriz)	" <b>Erbainez</b> betea du aurpegia, baina ez da itsusia, liraina da, gorputz guzia urdindu zaion arren."	(23)
<b>erdeinati</b> 'arbuia garria, mespretxuzkoa'	"Begirada fier eta <b>erdeinatiz</b> eraso zidatean..."	(131)
<b>ernai</b> 'itzarrik, erne'	"Egunkari eskuratu eta lehendabiziko muxua eman zion jadanik <b>ernai</b> zegoela jakin zezan."	(110)
<b>errari</b> 'batetik bestera dabilena'	"...eguzki eta abenturen bila etorri ohi diren horietako gazte <b>erraria</b> ."	(161)
<b>erratu</b> 'errari ibili, galduta bezala'	"Ez zekiat zenbat denboraz <b>erratuko</b> ote nuen labirinto asmotsu hartan barrena, etxeen fabrika perfektua miretsiz..."	(130)
<b>erregalia</b> 'oparia'	"Jaiki nauk eta muin egin zioat, <b>erregalia</b> zerbait utzi eta alde egin diat."	(128)
<b>erresumin</b> 'sentsazio jasangaitza'	"Erresumina zen. Ordura arte sekula sentitu ez bezalako <b>erresumin</b> erregarri bat..."	(30)
<b>erretolika</b> 'kopla, rollo'	"...galdetu nion bat-batean bere kexu <b>erretolika</b> etenaz."	(87)
<b>erretxina</b> 'zuhaitzen gai likatsu arrea'	"...alditan eztiaren kolorea hartzen zuela, alditan anbar <b>erretxinarena</b> ."	(160)



<b>errezelo</b> 'susmo txarrekoa'	"...gona estanpatua soinean..., "hippy samarra" erabaki nuen <b>errezelozko</b> behatze azkar baten ondoren."	(145)
<b>erroi</b> 'beletzarra / hegazti haragijalea'	"Ortzira begiratzen dut eta hegaztiak ikusten ditut, baina ez dira usoak, <b>erroiak</b> baizik, edo miruak."	(22)
<b>eskarnio egin</b> 'burla egin, sufriarazi'	"Begirada hartan bazen orain (...) amenazo aire bat, itxuraz, nire xalotasunari trufa eta (...) sentimenduei <b>eskarnio egiten</b> ziena."	(172)
<b>eskuera</b> 'eskumena, helmena'	"Nik, nire txoroan, mahai gaineko marmolezko hautsontzia kendu nion <b>eskueratik</b> , irribarre lelo bake-eskatzailea eginez."	(100)
<b>eszentriko</b> 'bitxia'	"Auzokoa (...) adinean sarturiko abokatu <b>eszentrikoa</b> genuen, dibortziatu, bufetea utzi eta erretiratu antzean bizi zena."	(149)
<b>ezagun izan</b> 'agerikoa, begi-bistakoa izan'	"Operaz ez ongi ez gaizki ez zuten hitz egin. <b>Ezagun zen</b> entzun ere entzun zutena."	(97)
<b>ezerian</b> 'ezer eduki gabe'	" <b>Ezerian</b> eta diziplina hertsian hazia haiz, etxetik eta herritik urrun."	(136)
<b>ezkaratz</b> 'sukaldea'	"Amonak hartu zuen kikara (...) eta <b>ezkaratzera</b> joan zen."	(14)
<b>ezta urrik eman ere</b> 'ezta pentsatu ere, inola ere ez'	"Zelan ezer esan? <b>Ezta urrik eman ere!</b> "	(163)
<b>eztenkada</b> 'sastada (mingarria)'	"...denak <b>eztenkada</b> bihurtzen zitzaizkion Enriqueri..."	(89)
<b>fabrika</b> 'eraikitze lana, fabrikazioa'	"Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto asmotsu hartan barrena, etxean <b>fabrika</b> perfektua miretsiz..."	(130)
<b>fier</b> 'oldartsua'	"Begirada <b>fier</b> eta erdeinatiz eraso zidatean..."	(131)
<b>fite</b> 'arin'	"Gezia bezain <b>fite</b> zabaldu zuan berria, malur beltz baten mandataria."	(127)
<b>fortunatu</b> 'suertatu'	" <b>Fortunatu</b> , zabalagoa zen gorputz meharra zulatu beharrean, burua zartatzea otutzea fortunatu zen."	(42)
<b>futada</b> 'tren zaharren txistua'	"Halako batean, orroen artetik trenaren bi <b>futada</b> entzun dira urrutian."	(91)
<b>gaitz</b> 'haundia'	"Piramide <b>gaitzek</b> ditek mugatzen han hodeiertza, eta gizasemeek lerra handia ditek horietara..."	(129)
<b>galbahe</b> 'bahea, iragazteko tresna'	"...sasi-azterketaren <b>galbahetik</b> iragandako edozein orrik kolore aniztun zirriborroaren itxura hartzen zuelarik."	(93)
<b>galtzarbe</b> 'besapea'	"...iluntzeko bederatziak aldera irten zen arriben pisutik soinean kaiku berde bat, <b>galtzarbean</b> partituren karpeta."	(89)
<b>gantz</b> 'koipea'	"Neska segaila zen, <b>gantz</b> izpirik gabekoa."	(154)
<b>geriza</b> 'babesa, itzala'	"Tunel baten iluntasunaren <b>gerizan</b> bidaia luzean elkarri begira joandako bi gazteren arteko sexu-harremanen kontakizunak..."	(77)
<b>gertu</b> 'hur, hurbil'	"Paula haren ondoan zegoen, jesarririk bera ere, <b>gertu</b> bezain mutu."	(45)
<b>governatu</b> 'jagon, zaindu'	"Laurogei burutik gorako artaldea eta lau ahuntz <b>governatzen</b> zituen, eta ahuntzekiko saioek, hain zuzen, zaildu zutela zioten."	(40)
<b>gogobeteko</b> 'asetzen duena'	"...persona bakoitzarentzat (...) toki bakar, trukezin eta, agidanez, <b>gogobeteko</b> bat egokitua dagoenez geroztik."	(130)
<b>goitinahi</b> 'botagurea, goragalea'	"—Goizeko <b>goitinahi</b> hori... -hitz egin zuen berriro."	(66)




<b>gorritza</b> 'odol piloa'	"Joxe Ferminen etxean <b>gorritza</b> guzti hura begiztatu zutenean, garrasi handi bat eta lau txiki entzun ziren herrian."	(42)
<b>gose</b> 'gose dena'	"Txerri <b>goseak</b> ezkurra amets, ordea."	(65)
<b>gupida</b> 'errukia	"Eta arizpearra bihotz biguneko jendea da; horregatik jaio zitzaien <b>gupida</b> mikatz hura	(46)
<b>guri</b> 'biguna eta leuna'	"Aurpegia ere ardi gazta kolorekoa zuen (...) ximur eta orbainik gabea, <b>guria</b> , zaildu gabea, bizar arrastorik ez zuena."	(86)
<b>hatsantu</b> 'arnasestua'	"Agurea isildu egin zen, <b>hatsantua</b> ."	(135)
<b>hautsak jan</b> 'zaharkitu'	"...han daude, <b>hautsak janda</b> , izenik ez duten erremintak ere..."	(114)
<b>herra</b> 'gorrotoa'	"Bazkaltzen ari gintuan, eta gorteko buruak hantxe zeudean, ene hitzetik zintzilik, irria bisaian eta <b>herra</b> bihotzean."	(134)
<b>histu</b> 'ase, bete'	"...bere uste ona ukatuko dik eta, omena <b>historik</b> , izan hintekeenaz pentsatzen higatuko haiz, malenkoniaz erreta..."	(136)
<b>hodeiertz</b> 'zerumuga, ortzimuga'	"Piramide gaitzek ditek mugatzen han <b>hodeiertza</b> , eta gizasemeek lerra handia ditek horietara..."	(129)
<b>horditurik</b> 'mozkorrik'	"Jadanik iragan dira hamar urte <b>horditurik</b> etxera eraman behar izan ninduteneko lehen arratsetik."	(13)
<b>huntz</b> 'huntzorria, landare igokaria'	"...atea bultzatuz sartu nintzen etxaldean, baita konturatu ere abandonuaren <b>huntzak</b> apenas ezkuta zitzakeela (...) kalteak."	(161)
<b>hurbilagodanik</b> 'ahalik eta hurbilenetik'	"...nire lanak <b>hurbilagodanik</b> ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, xixtaz eta sakrez setan ari."	(133)
<b>igurikatu</b> 'itxaron'	"Hara, han zegoen higitu gabe, hil nezan <b>igurikatzen</b> ..."	(20)
<b>ilaun</b> 'errekina edo errauts zatitxo'	"Ederrenetarik baitzen segur, maindire laru artean eztiki bildua, hasperena bezain arin eta <b>ilauna</b> ..."	(133)
<b>ilbehera</b> 'ilargi aldi bat'	"Kalera atera zenean, gaugiro ederra zegoela ikusi zuen. <b>Ilbehera</b> ."	(69)
<b>ilenti</b> 'egur zati erdi errea'	"Sua zerbait suspertutakoan, agureak <b>ilenti</b> bat aukeratu zuen."	(135)
<b>inorhuts</b> 'umezurtza' (zentzu fig.)	"...besta horietan erregeren itzal bihurturik nenbilen gaixo <b>inorhuts</b> honi, apaiz eta aitoren semeak baino gorago ezarria..."	(134)
<b>iraungi</b> 'indarra galdua, guztiz	"...eta nik anartean ikusi ez nuen emakume akitu eta <b>iraungia</b> ahalaz ez nekarazteko."	(132)
<b>isla</b> 'erreflexua, zerbaiten distira'	"... <b>isla</b> delikatu bat begietaratu zitzaidaan, ezin esan hasieran zer zen."	(132)
<b>istil</b> 'potxongoa, ur putzutxo'	Zapla-zapla oinak istilik <b>istil</b> ."	(121)
<b>itsaslabar</b> 'goitik behera ebakitako itsas	"Bertan, <b>itsaslabarren</b> oin-aldeko haitzartean, bazen sartune bat..."	(151)
<b>izarniatsu</b> 'distiratsua'	"Ahal nola erantzun nieran, batzuen ezpata eta ezkutu <b>izarniatsu</b> (...) imintzio eta jestukeriek hainbat kikildua."	(131)
<b>izendru</b> 'izendua, hondakina'	"Aloka ustel, maskor pusketa eta itsas <b>izendruz</b> beterik zeuden arroka gainak..."	(158)
<b>jauzika</b> 'saltoka'	"Sugarrak kiribilka, lantarrak gora <b>jauzika</b> , egurrak txinpartaka..."	(127)



<b>jelostez</b> 'susmo txarrekoa'	"Adio <b>jelostez</b> despeditzen nindiaten, kortesiazko irriak eta berba amultsuak ahoan."	(129)
<b>jetzi</b> 'eraitsi, esnea atera'	"Mesede bat egin behar didazu, Pedro, entzun zion lagunari, ardia <b>jezten</b> ari zelarik."	(43)
<b>junpatu</b> 'zabunkatu, kordoka jarri'	"...inperioko hiriburua, gau izarratu aratz hartan inguruko aintziren uhinek gozaro <b>junpatua</b> , sehaskako sein polit bat iduri."	(129)
<b>kalapita</b> 'eztabaida bizia, matraka'	"...gosari legea egin nian horiekin, jendearen mardaila indarberrituari eta kale populuetako <b>kalapitari</b> arretaz so."	(131)
<b>kalpar</b> 'kalparra, adatsa, ile multzoa'	"Hondora bidean, ordea, estu-estu jarri zizkidan belaunburuak aldaken parean, eta hatz gakotuekin <b>kalparretatik</b> tiraka hasi."	(174)
<b>kanpazo</b> 'ganpazua edo mantela' (?)	"Gainera, mendian artzain ibiltzen zena Julio zen eta nik Juliori eramaten nion lapikokoa, hartu <b>kanpazo</b> batean eta."	(191)
<b>kara</b> 'itxura'	"Babo <b>karaz</b> begiratzen zion zerbitzariak hasieran..."	(90)
<b>karkaba</b> 'kuneta'	"...ekialdera, <b>karkaba</b> sakona, non mahats parra fruitu gabeak bata bestearen gainean nahastekatu egiten ziren..."	(161)
<b>karkaila</b> 'algara, karkara'	"...erdi benetan erdi txantxatan zirto eta <b>karkaila</b> artean nire xedea zulatu beharrez eroria."	(128)
<b>karranka</b> 'zarata bizi ezatsegina'	"Sai saldo baten antzera han hasi zituan denak ele eta marmar, <b>karranka</b> fiakaitzean sinuka..."	(133)
<b>karraskilo</b> 'zuhaxka mota (fruitu beltza)	"Bertan kuzkurtu zen, bide bazterreko <b>karraskiloen</b> kontra. Zain gelditu zen."	(57)
<b>karreatu</b> 'garraiatu'	"Alde guztietatik izain sakratuak <b>karreatzen</b> zizkian haizeak, kantika deboten oihartzunetan bilduak."	(130)
<b>karrika</b> 'kalea'	"Garai hartan, orain bezala, Rum <b>karrikan</b> bizi ginen..."	(13)
<b>kasketaldi</b> 'aldikada, aldartea'	"Orduetan egongo zen horrela, hegazti arraio baten <b>kasketaldien</b> menera."	(150)
<b>kausitu</b> 'aurkitu, idoro, ediren'	"...ama maiz <b>kausitzen</b> nuen horditua, bakardadeagatik, ohituragatik ere bai."	(14)
<b>kikildu</b> 'beldurtu'	"Ahal nola erantzun nian, batzuen ezpata eta ezkutu izarniatu (...) imintzio eta jestukeriek hainbat <b>kikildua</b> ."	(131)
<b>kinkaila</b> 'generoa, erosgaia'	"-Bada, bihar ikusiko dugu zer <b>kinkaila</b> mota den -esan nion nik."	(155)
<b>kiribilka</b> 'birak eginez'	"Sugarrak <b>kiribilka</b> , lantarrak gora jauzika, egurrak txinpartaka..."	(127)
<b>kitzikatu</b> 'zirikatu, eragin'	"Malezia pitta batekin, pulpea eskaintzen zidatean, mingaina <b>kitzikatu</b> nahiz."	(128)
<b>kokildu</b> 'kikildu, uzkurtu, adorea galdu'	"...eta zokora erori zen berriro, eta gorputz utzia areago <b>kokilduz</b> , burua belaunetan babesturik, kantoi bihurtu zen."	(45)
<b>kordoka</b> 'alderoka, balantzaka, zabuka'	"...nire erantzukizunaren kausaz, <b>kordoka</b> hasi ninduan eta, ezin gehiago jasanez..."	(130)
<b>kostea kosta</b> 'kosta ahala kosta, edozer'	"Milioi hura eskuratuko nuen <b>kostea kosta</b> ."	(77)
<b>kraka</b> 'graka, ugerra, zikinkeria'	"Bat bazen egokia: edadetu samarra, <b>krakak</b> eta zikinak askorik jan gabea, burua soildua..."	(90)
<b>kresal</b> 'gezala, itsas uraren gazitasuna'	"Donostiako giroak, arrea, bustia, <b>kresal</b> usainekoa..."	(83)




<b>kulunkari</b> 'mugimenduan dagoena'	"Nik nekiela, Donostiatik Bilborako tren <b>kulunkaria</b> "Ferrocarriles Vascongados" enpresarena izan zen betidanik..."	(78)
<b>kuluxka</b> 'lotalditxoa'	"Bazkalondoan, nerbioek ahitua, lorik ezak abaildua, <b>kuluxka</b> bat egin ondoren (...) lorategira jo zuen."	(103)
<b>kuxidade</b> 'txukuntasuna'	"Han ez zen <b>kuxidaderik!</b> "	(163)
<b>kuzkurtu</b> 'uzkurtu, batu-batu eginda jarri'	"Bertan <b>kuzkurtu</b> zen, bide bazterreko karraskiloen kontra. Zain gelditu zen."	(57)
<b>lahar</b> 'sastraka, belartzarra'	"Kraska! Adarra hautsi eta mutila buruz aurrera erori zen <b>laharrak</b> janda zegoen hesiaren bestaldera."	(118)
<b>lakar</b> 'latza, leuntasunik gabea'	"...egusentira arte, haizeak magnolia hosto <b>lakarrekin</b> jolasteari utzi zion arte."	(157)
<b>lantar</b> 'txinparta, pindarra'	"Sugarrak kiribilka, <b>lantarrak</b> gora jauzika, egurrak txinpartaka..."	(127)
<b>lantzean behin</b> 'noizean behin, aldizka'	"Taldearen buru, arestiko zaharra zihoan, astiro, herren txikia eginez eta <b>lantzean behin</b> burua nigana jiratuz, larderia haundian."	(131)
<b>laño</b> 'laua, apala, garbia'	"Haren begiratzeko manera <b>laño</b> eta ohargabeak batera lotsatu eta errudun sentiarazi ninduen..."	(156)
<b>larderia</b> 'izua, beldurra, larritasuna'	"Taldearen buru, arestiko zaharra zihoan, astiro, herren txikia eginez eta lantzean behin burua nigana jiratuz, <b>larderia</b> haundian."	(131)
<b>laru</b> 'beilegi argia' (krema kolorea)	"Ederrenetarik baitzen segur, maindire <b>laru</b> artean eztiki bildua, hasperena bezain arin eta ilauna..."	(133)
<b>lauso</b> 'lainotua, difuminatua'	"...hiru balandroren zetaka zuriak salbu, urrutira, zerua eta itsasoa funditu egiten ziren ortzi-muga <b>lausoan</b> ."	(152)
<b>legar</b> 'harri xehatu multzoa'	"Azkenean, begiak gorriturik eta hoztu samar lehorreratu nintzen, eskukada bete <b>legar</b> baino lortua ez nuenean."	(160)
<b>leher</b> 'bete-beterik'	"...han zutabeak daudela, zernahi etxe sostengatzen, eta jauregiz <b>leherra</b> badela (...) jainkoen antzez eraikiak."	(129)
<b>lehiatz</b> 'norgehiagokan bezala'	"...aitari eskuan muin eginik kanpora atera zen, azkar, <b>lehiatz</b> , zeraman mezuaren ihesi iduri."	(137)
<b>lerra</b> 'joera'	"Piramide gaitzek ditek mugatzen han hodeiertza, eta gizasemeek <b>lerra</b> handia ditek horietara..."	(129)
<b>lerratu</b> 'irristatu, labaindu'	"Don Antonio zitalari zion gorrotoa, etengabe begi-bistan zuen lantegirantz <b>lerratu</b> zitzaion oharkabean."	(30)
<b>lohadarrik</b> 'hanka-besoak'	"Astiro mugitzen zen, bere <b>lohadarren</b> higidura bakoitzari zentzu sakon bat emango balio bezala."	(137)
<b>loka</b> 'dar-dar, lotu gabe'	"...eta hortik zehar barneratu ninduan ni, oinak <b>loka</b> eta uxkur-uxkurra."	(131)
<b>maguei</b> 'pita landarea'	" <b>Magueizko</b> soineko latzak jantzi dituk, sabelaren atseginak zer diren ez duk jakin..."	(136)
<b>makar</b> 'pizta'	"...diru mordoia begien parean jarri zionean, perezak presa bihurtu zitzaizkion eta <b>makarrak</b> izartxo..."	(90)
<b>malkar</b> 'harritsua eta aldapatsua'	"...atzean, mendi malda <b>malkarra</b> , olatuen aparretaraino laprastean erortzen zena."	(161)
<b>malur</b> 'zorigaitza, ondikoa'	"Gezia bezain fite zabaldu zuan berria, <b>malur</b> beltz baten mandataria."	(127)
<b>mandatari</b> 'mezularia'	"Gezia bezain fite zabaldu zuan berria, malur beltz baten <b>mandataria</b> ."	(127)



<b>mardaila</b> 'berbotsa, marmara'	"...gosari legea egin nian horiekin, jendearen <b>mardaila</b> indarberrituari eta kale populetako kalapitari arretaz so." (131)
<b>mardul</b> 'sendoa, osasuntsua'	"Gain hartan herriko baserri, zelai eta soro guztiak mendean zituzten bost gaztainondo <b>mardul</b> eta lerdan altxatzen ziren." (116)
<b>maskal</b> 'argala, ahula'	"Indar handiagoga behar zuen esku <b>maskal</b> haietan horretarako..." (198)
<b>maskor</b> 'oskola'	"...beldurra erabat uxatu gabe, <b>maskor</b> itxurako aldaba zaharra jo nuen nekatu arte." (162)
<b>mataza</b> 'korapiloa'	"...ordu luzeak emango genituen istorioaren hariak <b>mataza</b> bakarrera biltzen beste ezertan hasi aurretik." (85)
<b>mazitu</b> 'hondatu'	"Azkenean kala <b>mazituteko</b> , hainbesteko alperreko lurrik izanda." (168)
<b>mendean izan</b> 'menpean izan'	"Gain hartan herriko baserri, zelai eta soro guztiak <b>mendean</b> zituzten bost gaztainondo mardul eta lerdan altxatzen ziren." (116)
<b>mendre</b> 'ahula'	"...eta dorpeki artatu nuela gorputz ahul eta <b>mendre</b> hura, bazekiat." (133)
<b>menera</b> 'menpe, aginduetara'	"Orduetan egongo zen horrela, hegazti arraio baten kasketaldien <b>menera</b> ." (150)
<b>mikatz</b> 'samina, mingotsa, minkaitza'	"Eta arizpearra bihotz biguneko jendea da; horregatik jaio zitzaizen gupida <b>mikatz</b> hura." (46)
<b>milikatu</b> 'miazkatu'	"Garra jaio bezala hil zen, azken egur mamia <b>milikatu</b> eta erraustu ondoren itzali." (138)
<b>mingartu</b> 'mingostu, ezatsegin bihurtua'	"...aspaldi preso zegoen brisara <b>mingartu</b> batek itsasgizon baten etxean nengoela iragarri baitzidan." (162)
<b>mirabe</b> 'otseina, zerbitzaria'	"Egunaren hogeita lau orduak eskainiko zizkion Demetriori. Haren zerbitzari eta <b>mirabe</b> izango zen aurrerantzean." (33)
<b>miru</b> 'hegazti harraparia'	"Ortzira begirutzen dut eta hegaztiak ikusten ditut, baina ez dira usoak, erroiak baizik, edo <b>miruak</b> ." (22)
<b>mixtura</b> 'nahastura'	"...zeren jadanik kresalaren usain sarkorra, ergia eta beroaren <b>mixturaz</b> sorgorturik bainengoan." (153)
<b>mizpira</b> 'fruta mota'	"Ahokada atsegin eta sakon batzuen ostean, kea sudur <b>mizpiretatik</b> astiro kanporatuz, berriro lotu zen bere kontakizunari." (135)
<b>morkots</b> 'gaztaina oskola, lakatza'	"...lurrera erortzean gaztaina <b>morkotsek</b> eginiko zalapartak atera zuen Miren gogoeta larri horietatik." (117)
<b>morokil</b> 'ore lodia'	"Aurpegia zen tokian haragi eta odolezko <b>morokil</b> ezagutezina geratu da." (91)
<b>mudantza</b> 'aldaketa'	"Hauxe da, <b>mudantzarik</b> gabe, luzaro gorde dudana oroitzapena." (143)
<b>muin egin</b> 'musu eman'	"...aitari eskuan <b>muin eginik</b> kanpora atera zen, azkar, lehiaz, zeraman mezuaren ihesi iduri." (137)
<b>muker</b> 'zaputza, aurpegiera'	"...zuzien itzal bihurrietan eta jendaki <b>muker</b> haien oinotsetan baratua zirudien paraje hartan." (131)
<b>musu</b> 'aurpegia'	"...eta iruditu zitzaidan denen <b>musuetan</b> halako irribarre bat, bat bederari bere patuarekiko laketasun zin eta alegera batetik sortua." (130)
<b>naharo</b> 'ugari'	"...urrez eta harribitxiz <b>naharo</b> bulartuak." (129)
<b>narrasa</b> 'arlotea, dorpea'	"...kafesnean blaituriko opila irenstean Imanolek hartzen duen itxura <b>narrasa</b> ." (111)



<b>nolanahi</b> 'edozelan ere'	" <b>Nolanahi</b> , Edurneren artez Enrique une libreetan Bolivarrek ezaguturiko Madrilgo bazterrak bisitatzen jarri genuen..."	(86)
<b>nontsu</b> 'non inguru'	"Inondik ahal zela trenea sartu behar nion kontakizunari eta erabaki nuen ondoen <b>nontsu</b> egokituko zatekeen..."	(82)
<b>oinaztargi</b> 'tximista, inisitua'	"Urrutiagoko <b>oinaztargiari</b> ostots batek jarraitu zion zerua urratu nahian."	(120)
<b>okaztagarri</b> 'nazkagarria'	" <b>Okaztagarri</b> zitzaion. Ezin zuen fabrikaren presentzia gehiago jasan..."	(31)
<b>omen</b> 'ospea, ohorea'	"...bere uste ona ukatuko dik eta, <b>omena</b> historik, izan hintekeenaz pentsatzen higatuko haiz, malenkoniaz erreta..."	(136)
<b>ondoza</b> 'segida, jarraipena'	"...gure erresuma guzti horiei elkarren <b>ondoza</b> eta harmonia haundian leku uzteko bezain zabal eta handia baita."	(128)
<b>orbain</b> 'ebakia'	"Aurpegia ere ardi gazta kolorekoa zuen (...) ximur eta <b>orbainik</b> gabea, guria, zaildu gabea, bizar arrastorik ez zuena."	(86)
<b>ordoki</b> 'eremu laua, berdina'	"Arroak eta mendiak, zelaiak eta <b>ordokiak</b> , haitzak eta basamortuak zeharkatu nizkian..."	(128)
<b>oren</b> 'ordua'	"Ibili (...) zangoek <b>orenak</b> irabazi nahirik bezala."	(14)
<b>ortzi-muga</b> 'zerumuga, hodeiertza'	"...hiru balandroren zetaka zuriak salbu, urrutira, zerua eta itsasoa funditu egiten ziren <b>ortzi-muga</b> lausoan."	(152)
<b>osatu</b> 'sendatu'	"...ahots ezti eta leunez adierazi zidaan harek eria <b>osatzeko</b> sendagailua."	(128)
<b>osin</b> 'zulo sakona, leizea'	"Bahe baten gainean ari haiz, urrats dorpe bat eta <b>osinera</b> amilduko haiz..."	(136)
<b>oso bat jarri</b> 'bat eginik, konpenetraturik'	"Eta bitarte hartan <b>oso bat jarri</b> ziren Ibon eta Maria."	(148)
<b>ospeldu</b> 'ilundu'	"...munduko miru guziak bilduak, ekialdetik sartalderantz abiatuak ortzi guzia estaltzen dutela, zohardia <b>ospeltzen</b> dutela."	(22)
<b>ostendu</b> 'ezkutatu'	"...eguzki bola gorria gure atzeko haitz gailurretan hasi zen <b>ostentzen</b> ..."	(155)
<b>ostots</b> 'trumoia'	"Urrutiagoko oinaztargiari <b>ostots</b> batek jarraitu zion zerua urratu nahian."	(120)
<b>pairatu</b> 'sufritu, jasan'	"...on da hasieran <b>paira</b> dezan, on da zaildu dadin, gero berandu izango da, gero ezin izango da gehiago."	(136)
<b>palago</b> 'balakua, txera edo hitz berezia'	" <b>Palago</b> batzuekin bere gona luzean endredatu zuen aurreko haserrea ahaztarazten ziola."	(145)
<b>pattal</b> 'eraginkortasunik gabekoa'	"Maila apalagoko burutaziorik ere izan nuen (...) <b>Pattala</b> , bigunegia."	(78)
<b>perfektua</b> 'perfektua, akats gabea'	"Ez zekiat zenbat denboraz erratuko ote nuen labirinto asmotsu hartan barrena, etxeen fabrika <b>perfektua</b> miretsiz..."	(130)
<b>peril</b> 'arriskua'	"...Jainkoen hizkuntza ezin koka daitekeela gizaseme baten buruan, non ez den burua zapartzeko <b>perilean</b> ."	(132)
<b>pigura</b> 'itxura'	"Halere, ez zuen halako <b>pigura</b> nabarmen eta barregarririk txikikeria hau salbu..."	(87)
<b>pindar</b> 'txinparta, zatiki gorria'	"Buruan beti adimen <b>pindarren</b> bat gelditzen bide zitzaidaan, ordea..."	(128)
<b>pipi</b> 'pipia, sitsa, intsektu egur-jalea'	"Baziren, halaber, bolero plaka zakarrak-eta, teontzi txirtxilatatu baten azpian <b>pipiek</b> jandako zenbait liburu..."	(148)




<b>pitta bat</b> 'pitin bat, apur bat'	"Malezia <b>pitta batekin</b> , pulpea eskaintzen zidatean, mingaina kitzikatu nahiz."	(128)
<b>plantak egin</b> 'itxurak egin'	"Errazena bere buruaz beste egitearen <b>plantak egitea</b> zatekeen..."	(80)
<b>potin</b> 'batela, ontzi txikia'	"...porturatzen ari ziren kargaontzien errainu ilunak agertu zitzaizkigun, halako <b>potin</b> zabukariak, biraka zebiltzan kaioak..."	(152)
<b>prantatu</b> 'prestatu'	"...beren buruak estuegi hartuta ikusiz gero, atzera bueltatzeko ere <b>prantatu</b> egin baitzitezkeen."	(198)
<b>propioagoa izan</b> 'aproposagoa, egokiagoa izan'	"...nik ezetz, <b>propioagoa zitzaidala</b> leku hura zerbitu ahal izateko."	(144)
<b>pulpea</b> 'alkoholdun edari bat'	"Malezia pitta batekin, <b>pulpea</b> eskaintzen zidatean, mingaina kitzikatu nahiz."	(128)
<b>puntaneko</b> 'punta-puntakoa' (?)	"...amak alaba bakarra baino gordeagoa neukan ipuin hau, <b>puntaneko</b> kontakizun mordoska osatzean (...) argitaratzeko."	(80)
<b>sakre</b> 'mardarizioa, biraoa'	"...nire lanak hurbilagodanik ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, xixtaz eta <b>sakrez</b> setan ari."	(133)
<b>sarkastiko</b> 'ironia latz mingarrikoa'	"Ilunabar hartan, berriz, ironiko gabe, <b>sarkastikoa</b> iruditzen zitzaion "poeta" hitza."	(43)
<b>segaila</b> 'pertsone mehe-liraina'	"Neska <b>segaila</b> zen, gantz izpirik gabekoa."	(154)
<b>sein</b> 'umetxoa, haurra'	"...inperioko hiriburua, gau izarratu aratz hartan inguruko aintziren uhinen gozaro junpatua, sehaskako <b>sein</b> polit bat iduri."	(129)
<b>senaia</b> 'badia'	"... <b>senaia</b> ko ur gain osoa hegopean ia hartua zuen itzal erraldoi hartarantz besoa luzatuz."	(155)
<b>sendartu</b> 'solido bihurtu'	"...pilaturik zuten hauts geruza <b>sendartua</b> zela eta, edergailu bakoitzak bere historia eta leku sakratua zituela esan zitezkeen..."	(163)
<b>sesio</b> 'eztabaida'	"Horrez gain <b>sesio</b> txiki bat ere izan genuen mahai inguruko jesarlekuak banatzerakoan..."	(144)
<b>seta</b> 'tema, jarrera setatia'	"...nire lanak hurbilagodanik ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, xixtaz eta sakrez <b>setan</b> ari."	(133)
<b>simaurtu</b> 'hondatu, alferrik galdu'	"Lan biribila <b>simaurtu</b> nuen nonbait, ipuin eder askoa zabor bihurtu."	(101)
<b>sinuka</b> 'keinuak egiten'	"Sai saldo baten antzera han hasi zituan denak ele eta marmar, karranka fiakaitzean <b>sinuka</b> ..."	(133)
<b>soildu</b> 'mehaztua, urritua'	"Bat bazen egokia: edadetu samarra, krakak eta zikinak askorik jan gabea, burua <b>soildua</b> ..."	(90)
<b>solas</b> 'hizketa, berbeta'	"...erretorearekin bezpera aurrean izandako <b>solasa</b> etorri zitzaion gogora."	(59)
<b>sopikun</b> 'konplizitatez'	"Horregatik, txantxatan (...) bota nion, "nik dakidan bat harrapatuko bazenu...", irribarretsu, <b>sopikun</b> ."	(95)
<b>sorgorturik</b> 'zentzumen nahasturik'	"...zeren jadanik kresalaren usain sarkorra, argia eta beroaren mixturaz <b>sorgorturik</b> bainengoen."	(153)
<b>suhar</b> 'bizia, gartsua'	" <b>Suharra</b> zen hizketan, norbere esana belarrietara heldu ahala berotzen joaten zen horietakoa..."	(101)
<b>sunda</b> 'zerbaiten usain berezia'	"Baina ezin leike dana ixilik egin, eta haizeak ekarriko euskun noiz edo noiz itsasoaren bestaldeko <b>sunda</b> ..."	(166)
<b>tajuzidade</b> 'taxua, traza, itxura'	"Treneko eszena erotikoaren istorioa esaterako, huts samarra iruditzen zitzaidan, <b>tajuzidade</b> gutxikoa."	(77)



<b>taupaka</b> 'taupadaka, odol kolpeka'	"Biharamunean, burua artean <b>taupaka</b> , adeitsuki besarkatu eta bereizi egin gintuan."	(129)
<b>temati</b> 'egosgogorra, burugogorra'	"Edurne baiezkoaren alde agertzen zen; ni beti ezezkoan <b>temati</b> ."	(84)
<b>tira</b> 'joera, erakarpena'	"Zartagin, kazuela, xehetzaile eta gainerakoekin hasi zen, nik ezagutzen ez nion sukalderako <b>tira</b> izugarriren baten menpean edo."	(94)
<b>tiraina</b> 'ur lasterra / uhina' "desioa"	"Eta errazena egin nuen, eramaten utzi nion <b>tirainari</b> , eramaten."	(156)
<b>trikean</b> 'topeka, talka egin' (?)	"...baina esku banarekin lepagainetik heldu eta elkarren kontra <b>trikean</b> eginarazi nahi izan zigunean, ez zuen nahi zuena lortu..."	(197)
<b>trilu</b> 'astrapala' (?)	"Txerria hiltzen baino arrantza eta <b>trilu</b> handiagoa jarri zuen."	(185)
<b>tronpatu</b> 'erratu, nahastu'	"Hiriko zalapartak ez hazala <b>tronpa</b> ."	(137)
<b>tutu</b> 'zuloa'	"...ordu jakinetan marru eginez, hemen naukak esanez bezala, sar-irtenaldi orotako <b>tutuaz</b> desafioka."	(30)
<b>txatxar</b> 'kaxkarra, mengela'	"Sugar <b>txatxarrak</b> ernatu ziren lehenik. Adartxo ihar batzuk inguratu zituen sutara."	((57)
<b>txibitara</b> 'txibiak harrapatzer'a'	" <b>Txibitara</b> irtengo da goizaldera, bakarrik, eta batela hutsik azalduko da haitzetatik hurbil..."	(80)
<b>txilar</b> 'landare mota' (erica)	"...korrika bizian hasi ginen <b>txilar</b> eta lirio morez beterik zegoen muna batetik..."	(152)
<b>txirtxilatu</b> 'zirtzilatu, txiki-txiki egin'	"Baziren, halaber, bolero plaka zakarrak eta, teontzi <b>txirtxilatu</b> baten azpian pipiek jandako zenbait liburu..."	(147)
<b>txitxi</b> 'haragi, okela' (ume hizkuntza)	"Bat bazen egokia: edadetu samarra (...) burua soildua eta eskaleek nekez osa zitzaketen <b>txitxi</b> en jabe zena."	(90)
<b>tzar</b> 'haundia, gaitza'	"Gogoeta hori nerabilela, ustekabean, gerlari talde batek zaindutako ate <b>tzar</b> batera iritsi gintuan."	(132)
<b>ubarroi</b> 'ubarroia' (cormorán)	"...galdetu zidan Mariak orduan, jadanik, <b>ubarroi</b> baten itxuraz..."	(155)
<b>uda min</b> 'uda sasoi bero-beroa'	" <b>Uda mineko</b> eguna gehiago zirudien udaberrikoa baino."	(144)
<b>uhin</b> 'olatua'	"Ate ertzer'a heltzean, jiratu zen eta lehertzeko unean izaten duen indarrez eraso zidan apardun <b>uhinak</b> ."	(102)
<b>usain min</b> 'usain sarkorra, gogorra'	"...tren geltokiek txiki denborara itzularazten ninduten, lokarri, hango komunetako txiza <b>usain mina</b> zela. Pattala, bigunegia."	(78)
<b>usu</b> 'sarri, maiz, askotan'	"Baina ez nintzen <b>usu</b> egoten etxean..."	(14)
<b>uzkur</b> 'makur-makurturik'	"...eta hortik zehar barneratu ninduan ni, oinak loka eta <b>uzkur</b> -uzkurra."	(131)
<b>uzkurtasun</b> 'mesfidantzaz'	"Azkenean dutxa isilarazi eta egunari eta egoerari ez zegokien <b>uzkurtasunez</b> (...) "lagun izango gara" esan zidan..."	(85)
<b>uztarri</b> 'idiak lotzeko zurezko tresna'	"...aulkiren bat konpondu, edo halako baserriar batek enkargatutako <b>uztarria</b> egin, edo..."	(114)
<b>xafila</b> 'xerra, puska'	"...lau pupitre ilara zuzen-zuzenetan (...) eskola dena betetzen zuen <b>xafila</b> bat eginez."	(184)
<b>xalamatika</b> 'gorabehera, ezadostasuna'(?)	"Pertsonaia nagusi eta ia-ia bakarraren deskribapen fisikoa egitean ere <b>xalamatika</b> batzuk izan genituen."	(86)



<b>xalotasuna</b> 'atsegina, lañoa'	"Begirada hartan bazen orain (...) amenazo aire bat, itxuraz, nire <b>xalotasunari</b> trufa eta (...) sentimenduei eskarnio egiten ziena." (172)
<b>xaxatu</b> 'akuilatu, zirikatu'	"Ederki zekien herioak txakurrak <b>xaxatzen</b> . Alferrik zuen Xuri lasaitzen saiatzea." (56)
<b>xaxatzaile</b> 'zirikakor'	"Behatzak hori-hori eginda dauzkazu" esan zidan lehor, gerrara doanak lehen gezi <b>xaxatzailea</b> jaurtitzen duen bezalatsu." (100)
<b>xehe</b> 'diru soltea'	"Ordaindu egin zuen. Markoxek bihurtu zion <b>xehea</b> jaso eta kanpora abiatu zen bera ere." (63)
<b>xeratsu</b> 'maitekorra'	"Maggie <b>xeratsuagoa</b> zen orduan, ama eriturik zela." (18)
<b>xixta</b> 'zirikada' / (lantzeta, bisturia)	"...nire lanak hurbilagodanik ikusi behar eta elkarri bultza eta saka, <b>xixtaz</b> eta sakrez setan ari." (133)
<b>zabukari</b> 'kulunkaria'	"...porturatzen ari ziren kargaontzien errainu ilunak agertu zitzaizkigun, halako potin <b>zabukariak</b> , biraka zebiltzan kaioak..." (152)
<b>zafratu</b> 'astindu, bortxaz kolpatu'	"Deskuidatu egin haiz, neska", pentsatu nuen eta ura amorruez <b>zafratu</b> , besoekin, hankekin, ondo nekatu arte." (154)
<b>zahato</b> 'ardo bota txikia'	"Eta azkenean, Braulio, ahuntzainak eskaintzen zion <b>zahatotik</b> edan gabe, etorria zen bidean behera jaitsi omen zen." (42)
<b>zaildu</b> 'gogortu'	"Laurogei burutik gorako artaldea eta lau ahuntz gobernatzen zituen, eta ahuntzekiko saioek, hain zuzen, <b>zaildu</b> zutela zioten." (40)
<b>zainarta</b> 'irtena, neurritz kanpoko'	"Gaitza zen, <b>zainarta</b> , gaztetasunak betegintzarrearen azalia abesten zuen bere gorputzean." (137)
<b>zakartu</b> 'bizi jarri'	" <b>Zakartua</b> zegoen itsasoa baina, oso zakartua." (101)
<b>zakatz</b> 'arrainen arnas zuloguneak'	"...biraka aritzen zen arrainaren <b>zakatz</b> eztena eztarrian sentitu arte." (156)
<b>zanpatu</b> 'zapaldu'	"Imanolek zerbait biguna <b>zanpatzen</b> ari zela sumatu zuen." (123)
<b>zantzu</b> 'aztarna, seinalea'	"...Paularen irribarre gogo hura irribarre amatiarra zeneko lehenengo <b>zantzua</b> ..." (39)
<b>zapartatu</b> 'zapart egin, errementatu'	"...Jainkoen hizkuntza ezin koka daitekeela gizaseme baten buruan, non ez den burua <b>zapartatzeko</b> perilean." (132)
<b>zapuztu</b> 'ustekabe batek tristetu'	"Eta ni alde batetik pozik nengoen (...) baina, bestaldetik, <b>zapuztu</b> samar sentitzen nintzen..." (148)
<b>zarpail</b> 'zahar-zikina, itxura txarrekoa'	"...gela erditxoan kokatu genuen, saretxo <b>zarpaila</b> nola zutitu pentsatzen ari ginela." (146)
<b>zarrapastroso</b> 'itxura txar-txarrekoa'	"...konturatu da umea atzean geratu zaiola, andeneko banku batean luzetara lo datzan eskale <b>zarrapastroso</b> bati begira." (84)
<b>zarrasta</b> 'inpresioa'	"...salto batez ur gardenetan murgildu nintzen. Hura <b>zarrasta!</b> " (153)
<b>zartada</b> 'kolpe indartsua'	"...Jainko zauritu batek ez bestek jaurtiki lezakeen tximistaren <b>zartadak</b> burua makurrarazi zien." (120)
<b>zatar</b> 'itsusia, higuinaria'	"Orduan, mutilzahartasunaren salatari, gauzarik <b>zatarretan</b> zatarrenak bistatzen zituen jendearen aurrean..." (87)
<b>zela</b> 'azpiko aldea'	"Gogoratzen dut whiskya edan ondoren edalontziaren <b>zelara</b> begira gelditu nintzela..." (13)
<b>zemaikor</b> 'mehatxuz'	"...amorruta eta ezintasunezko akordatuko haiz! bat jalgi zen trumoitsu eta <b>zemaikor</b> ..." (30)



<b>zerri egin</b> 'lohitu, zikindu'	"Afari ona egin behar genuela esan zidan eta emateko mantala, bestela arropa berria <b>zerri egingo</b> zuela eta."	(94)
<b>zetaka</b> 'orbaina, mantxa'	"...hiru balandroren <b>zetaka</b> zuriak salbu, urrutira, zerua eta itsasoa funditu egiten ziren ortzi-muga lausoan."	(152)
<b>zetako</b> 'zertako, zertarako'	"Hona etorri erregina lez biziko zalakoan eta <b>zetako</b> ?"	(168)
<b>zindo</b> 'bulartsu, kementsu'	"Bete ezak, bada, hire eginbidea zuzen, sendo, <b>zindo</b> ."	(136)
<b>zinka</b> 'zinkada, eguzkiak eragindako'	"Hasieran, eguzki <b>zinkari</b> egotzi nion errua."	(156)
<b>zintzarri</b> 'joarea, animalien kanpaitxo'	"...goiko larreetan ardien <b>zintzarriak</b> aditzean aitona txakurrari txistuka entzun lezakeena..."	(112)
<b>zipiztu</b> 'txiki-txiki egin'	"Itsasoan, gorpuaren falta ulergarria zen guztiz, baina trenak harrapatutako gizonarena ez da desegiteraino <b>zipizten</b> ."	(88)
<b>zirin</b> 'biguna'	"Egunguentiaren argi <b>zirinari</b> berehala etorri zitzaion argi zabala igande eder baten atarian."	(110)
<b>zirrara</b> 'ikara, inpresioa'	"...berotasun berezi hura (...) zor zitzaiola ezerezetik hasi eta istorio bat asmatzeak sortu ohi duen <b>zirrarrari</b> ."	(81)
<b>zirto</b> 'ateraldi bizia'	"...erdi benetan erdi txantxatan <b>zirto</b> eta karkaila artean nire xedea zulatu beharrez eroria."	(128)
<b>zirtzilu</b> 'arrakada, belarritakoa'	"Zerbaitek esaten zidan nire pirata <b>zirtzilurik</b> gabe geratuko nintzela..."	(160)
<b>zizta</b> 'eztenkada'	"...bozkario eta beldurrezko <b>zizta</b> batek zeharkatu nindian nintzen guztia."	(130)
<b>zohardi</b> 'distiratsua, argitasunez bete'	"...munduko miru guziak bilduak, ekialdetik sartalderantz abiatuak ortzi guzia estaltzen dutela, <b>zohardia</b> ospeltzen dutela."	(22)
<b>zurrun</b> 'gogortua'	"Eta ez Paula izorregarria ez zelako, ohola baino <b>zurrunago</b> zegoelako baizik."	(44)
<b>zurruta</b> 'edana'	"...lehenengo musutik nabaritu nuen berotasun berezi hura <b>zurrutari</b> baino neurri handiagoan zor zitzaiola (...) zirrarrari."	(81)
<b>zuzi</b> 'tortxa'	"Ez zekiat zer denboraz ibili ote genituen pasadizo haiek, aldiak <b>zuzien</b> itzal bihurrietan..."	(131)